euskal oŕia

«Aberri»'ren omen-eguna

"Abeŕi"ren omena ta idazle-batzaŕa. ¡Alajaña! ¡Etzerate gutxi! ¿Dunbada batez bi txori, e?

Lendabizi "Abeŕi"ri agur dagiot, zorionik anaikoŕenak emanaz. Agur "Abeŕi" omen-egun arte. Irakuŕi ditut idazle batzuen iritziak; egiya esan "Luzear"enak ematen dit buru austia.

"Txistu"ren erako izpaŕingi bat egin edo atera bear litzakela. Ara zer diotan, ustez gai ori ondo aztertu ondoren. Eztā.

¿Ez asaŕetu e, "Luzear"? ¡Ori, iritzi bat besterik ez da-ba!

Nere ustez, ez daude oraindik umiak izpaŕingiyak irakurtzeko eran landuak. Gañeraz, nik ikusi detanez, euskaldun umiak ez dauka oraindik gauzatxo oletarako zaletasunik; euskaldun umia, jolas, abesti, dantza zalia da.

Nere ustez ba, umia irakurtze oletara oitutzia, ez da gure lana, ikastolena baizik.

Obe izango litzakela deritzat, ("Txadon zaya" iritzi ontakoa da) "Txistu"ren ordez idazti bat ateratzia arek ekaŕi litzazken gauzatxo berakin. Nere iritziz, au izango litzake onena; bada orduan, aitak edo amak erosi egingo luke idazti ori par pixka bat egileaŕen. Ez baita ba berdin urtian bein erosi edo astero erosi.

—o—

Badago beste zalantza bat ere; eta da, batzar ortara euskaltzale idazle guztiak juan bear luteken ala ez. Ontan ere, ezetzkua naiz. Batzar ortan erabaki gogoŕak artu bear dira abeŕi alde; ezin juan bada beste idazleakin bat eginda, ez'u egin lezateken gauzak eskatzeko. ...nen gañean uren go egun batian ...datziko det obeto ierdituaz.

ZALOŔA

¡Iritziak, iritziak!

Orixe izan da "Abeŕi"ren omenaldia dala ta eratu degun idazle batzaŕari buruz, gure iŕintzia.

Etzazu beraz uste, "Zaloña" begikoa, nere iritzikoa etzerala ta beste gabe zuren saskiratuko dedanik.

Bai ordea zuk diozunari zeredozer erantzi.

Alpeŕaldiak jota negon gaurko ontan. Idazlanak beŕiz ugari patriketan. Itzik ere idatzi gabe gaurkotik "safo" nitzan beraz.

Begiko ninia ikutu didazu ordea, "Zaloña", ta ona ni nagitasunak uxaturik zerbait esan naiean.

Euskaldun umeak ez dira baseŕikoak bakaŕik. Ezi au ez didazu noski ukatuko. Ta baseŕiko neska-mutilkoak, euskaldun utzak alegia, onelako gaitxoetara zaletasunik ezpadute ere, besteak, eŕitakoak, "T. B. O.", "Pocholo", "Jeromín" ta onelakoakin ikusiko dituzu. Nere etxean oŕela gertatzen da beintzat. Ta ez det uste beste abertzaleen seme-alabak, guk txikitan ta bai kozkor samartuta ere ain gogokoak genitun irakurgaiak naiko ez dituztenik.

Zuk nork irakuŕirik arkitzen ez dezu. Nik beŕiz nork egiñaren bildur aundiagoa dizut. Len ere etzuten irakurleak uts egin, etxe baŕenen izan genun ajea. Oŕexegatik nion "euskal idazleak nai badegu", ori egineziñik ez dagola. Guzion "aurtxoa" bear genuke aldizkingitxo maitagaŕia.

Ta sinistu, "Zaloña", laster zaletuko genituzke beste aur oiek ere, gureganontz ekaŕiaz. ¿Ikastolak nola zaletu bear ditu ba, zaletasun gairik ematen ezpadiogu?

Urtean beingo idaztia eŕexago erosiko luteksuagatik ere zerbait esan liteke. ¿Asteroko "txakur aundia" baño eŕexago ematen ote da ba noizean beingo "pesela"? Nik ez beintzat. Ta urtetik urterako epea luzetxoa da nere iritzian.

Bigaŕen zalantza ere alegiñean argituko nizuke, baña nola beste lanen bat agintzen dezun, ura irakuŕi artean eztet ezertan asi nai.

Ta asllakoarekin amaitzen det: "¡Iritziak! ¡Iritziak!"

LUZEAR

Motriko

¡EUP! Abertzale ta etxetatenak. Gaur, dei bat dagizuet, ¡zuen biotzian ... dan dela ordia!

Beti emen genbiltzan, egaŕi bizi, itzaldiak gure baŕenoratu nairik. Azkenez ez da denbora asko "Altzeta" ospetsuari entzun genioia, baña beŕiz ere zuen biotz eta adimena argitzeko eran jaŕiko dizute larunbat ilun beko 8 t'erditan Eusko Batzokian itz egingo duan Zumalabe'tar Agustin Jel arlo ... dabilen gazte bulartsuak.

Emakume guzaseme, abertzale ta ... larunbat iluntzan ... toki E. B.'ko areto izan dedila ba.

GURUTZ ONDO

Andoain

EMENGO LEKAIMEAK ERBESTERA

Orain erkalak jaŕi duan lege beltza dalako eŕi onetan aspaldiko urtietan arkitzen diraden "Notre Dame"'ko lekaimeak badijuaz beren etxe nagusira Prantzi'ra. Oyek beren etxe nagusira dijuaz, baña ainbeste ta ainbeste gure anai aŕebak beren abeŕiya utzi ta erbesteratu biaŕa izango dute lege au dalako, zoritxaŕez.

Eŕi onetan utsune aundiya utziko dute lekaime agurgaŕi oyek bada bertan aurtxo asko ibiltzen dirade ikasten ¡baña nolako ikastola!

Berak badijuazelako antziñako ta oraingo ikasleak ain ondo irabazia daukaten omenaldia eskeŕi nai diote. Entzun detanez il onen 19'an izango da au. Bertan elizkizun eder bat egin ondoren, bira bat egitekuak dirade Arantzazu'ra.

Oso ederki derizkiot zuen asmo edeŕa, ta Arantzazuko Amaren oñetan auspez jartzen zeratenian eskatu orain jaŕi duten legeak ez dezan izan indaŕik.

Lekaime oyen jananarekin eŕi guztiya gelditzen da naigabez, ez eskubikoak bakaŕik baita ezkeŕeko asko ere, bada oyek ere beren auŕak ikastola onetara bialtzen dituzte ¿ta au zergatik ote?...

Lekaime agurgaŕiak badijuaz utsune aundiya utziaz ¡oyen utsunea betetzera zeintzuk etoŕiko dirade?

Jaunak nai dezala Jaungoikoaren ikuŕinpian aurtxoak aziko dituen irakasleak izatea.

BELAR EBAKITZE NEURKETA AUNDIYA

Uzta'ren 10'an bildu ziraden Kortajarena'tar Juan "Ondartza", Asteasu'koa, Abuluza'tar Zelestino Aduna'koa, Ezama'tar Txomin Sorabila'koa ta Galardi'tar Tomax Andoain'goa ta erabakia artu zuten beren artian belar ebakitze neurketa bat egitia Etxebeŕieta'ko zelayian. Neurketa au il onen 23'an izango da, era ontan:

Auŕenekua: Bakoitzak izango du berak nai duan laguntzale bat.

Bigaŕena: Epaileak izango dirade Jauregi'tar Juan ta Balerdi'tar Joxe.

Irugaŕena: Sariyak izango dirade:
Auŕenekua, 150 laurleko.
Bigaŕena: 125.
Irugaŕena: 100.
Laugaŕena: 75.

Eguaidi txaŕa bada ondorengo igandérako utziko da neurketa.

Neurketaŕi asiera emango zayo amaiketan.

Zelaya zortzi zati egingo da. Bakoitzak bi zati ebaki biar ditu. Bi zatiak auŕena ebakitzen dituanak irabaziko du auŕeneko sariya ta gañontzekuak era berdiñian.

Bakoitzak ekaŕi lezazkike iru sega.

Neurketa zale oyek oso ezagunak dira. Oyetako iru "Ondartza", Abuluza ta Tomax "Elizalde", lenago ere neurtubak dirade, Ezama oraindik ez da neurtu zelaya onetan, baña oso yayua izan biar du. Bere aldekuak itxaropen aundiya daukate ta neurketa onetan lanak emango dituala diote.

Lau segalari onenetakuak neurtuko dira batera. ¡Zer ikuskizun edeŕa izango dan au!

Beren aldekuak asiak izan biar dute "trabesak" egiten, "oŕenbestian ebaki bayetz" ta abar. Izan ere oŕelako neurketa edeŕik ez da ikusi aspaldiyan.

ITZALDI ABERKOYA ASTEASU'N

Datoŕen igandian Asteasu'n izango dira itzaldi aberkoyak. Bertan egingo dan jayaren beŕi berak emango dute.

Ain bulartsu lana egiten duten Asteasu'ko abertzaliai laguntza eskeŕi bear diogu. ¿Nola? Igandian notin asko bertara juanaz itzaldi oletara. Erakustera oraindik Jel alderdiya zer dan ezagutzen ez dutenak, zeñen indar aundiya daukan, ta ikusi dezaten baita ere Jel alderdiyak zer eskatzen duan: bi gauza bakaŕik, au da Jaungoikua eta Lege zaŕa, uzkurtza ta abeŕiya. Bi gauza oyek maitatu biar ditu biar bezelako euskaldun batek.

Itzaldi oyetan gauza oyek ikasten dira: Jaungoikua gauza guztien gañetik maitatzia ta gure abeŕiya, Euzkadi dala.

¿Ta euskaldunaren abeŕiya, gure Ama Euzkadi bada, zergatik ez guztiyok maite izan?

Biar bezela maite badezu gure ama, Jel alderdira etoŕi zaitia ta euskaldun guziak biar bezela ezagutu ta maitatzen badegu guk nai bezela ikusiko degu Euzkadi.

EUSKEL IZENA

Loyarte Nabaŕo'tar Jon ta bere emazte Luzia'k izan duten alabatxuari Miren Karmele euskel izen polita jaŕi diote.

Ama alabak osasunez arkitzen dirade. Asko poztutzen naiz.

Zorionak ta azi zien alaba euskaldun on eŕan.

EZKON DEYA

Ezkon deyetan arkitzen dirade, abertzale jatoŕ tan Ŕañola'tar Inazio ta Lizaŕibar'tar Sabina.

Zorion edukiak artu.

PATXI

Lazkano

Loari zatitxo bat lapurtuaz "Euskal Oŕi" kutun ontara nator, gaur, eŕiko idazle gazte artean, asiera artuta dagon buŕunnara au, nola zuzendu litekean, bideak agertzeko asmo zuzenez.

Pozgaŕia da benetan, euskeraz idazteko guziok artu dezuten leia; baña jakin zazute, ondo idatzi nai duanak auŕena, irakurgai onak, asko, ta asko, irakuŕi, eta ausnartu egin bear ditula, bestela kirtenkeri aundiak idazkortzari ingira, iges egiten zaleak dira, nereari beintzat amalkatxok egin izan dio; beraz idatzi; baña irakuŕi, Euskal Oŕia, Argia, Euzko, eta abar. "Euzkadi" egunorokoak ere euskerazko irakurgai mamitsuak baditu.

Nork bere begiko ageak ikusi bage, iñoren begiko lasto izpi bila saiatu bage, badago lana. Nere ustez, egoki litzake bakoitzak bere aldeti, bidea artu, eta aŕeta aundiz jaŕaitzea. Batek, udal batzaŕen beŕi astero eman; besteak, mara-mara gaztelerаz mintzatzen diran abertzale, emakume, mendigoizale, eta abar, ta abar, nor diran izendatu bage, gero ¿e?... bestela izenez Euskal Oŕi osoa, ez litzake izango naikoa.

Beste batek, igandean, txistulariak zenbat ezpata-dantzari, ta irulari, auŕean dantzan ikusi dituan jaŕi; oiek... ezitu leŕo asko beteko... guzien izenak jaŕita ere.

G-fiera olerkitxo batzuek ere antolatu; gazteak ausardia badu, eta jardunaz, trebetasuna batek edo besteak izango du.

Utzi bada alkaŕenganako zirikari, eta euskera maite, eder, biguñ, eztitsu au, goraldu, bakoitzak berari dagokion almen guziaz; bada guk uste degun baño gelagok irakurtzen dituzte gure lanak, eta irakurle oiei zor diogun begiramenagatik bear degu izan aldegun zuzenenak gure idatzlanetan.

Idazle gazte sali edeŕa zerate ¡trebeak gañera!, ia bada bakoitza bere aldetik saiatuaz, Lazkano'ko eŕiaren izena euskaltzaletasunean noraño goraltzen dezuten.

Ai nik zuen adiñean, euskel bideak zuek arkitu dituzuten bezin zabalak, arkitzeko zori ona izan banu...

MAMITXO

Miguel Larre
MEDICO · DENTISTA
CHURRUCA, 14, 1.°
Consulta de 9 a 1 y de 4 a 7

Eibar

EZKONTZA. — Astelenian eta Afate'ko Ama Neskutza'ren oñetan, ezkondu zan Urkiola'tar Kepa (EL DIA ko izparkari jatoŕa) Lasa'tar andereñoarekin.

Ondoren sendi guzia, bildu zan, gosari eder bat egiñaz.

Ilun abaŕian ezkonbeŕiak España'runtz juan ziran.

Opa diet biziera pozgaŕi eta zoriontsua.

ERKALDARRAK. — Igazi dan igandian erkaldaŕak antolatuta zuen bezela egin zuen itzaldia.

Baño ez oraitxiok, itzaldi oŕetara ... jolintzakin ez zuen ametsik egin. Ez noski.

Lau izlari onenentaikoak ekaŕi, aste guzian "La Voz de Tutakamaladiego"'k izugaŕizko izpar eta argazkiak ekaŕi aŕen 200 lagun baño ez ziran egon. "Muy Ejemplar" da Eibar eta...

BURNIBIDE ETA MIRENTXURI.— Burnibide adiakide, gaizki esateko go gua dekala uste diat, baño, kontu egin uŕengo baterako, ixkira buruak iri ezaŕi beaŕik ez dagidan izan.

Mirentxu, zuk bai dakizu neretako janari atsegingaŕiena zer dan, jaŕi ezazu bada batzar egunerako. ¿Onak al zeuden "mutil zaŕak" eramandako goxoak?

Lakatza

Iparragirre'ri omenaldia Urretxu'n

Badatorkigu euskotar orokin batera uŕetxutaŕok ain gogotsu itxaro degun eguna.

Gañian degu oraintxe ilaren 16'a.

Egun oŕetan (J. L.) Ipaŕagiŕe uŕetxu'tar olerkariaren oroimen goralgaŕia ospatuko da Uŕetxua'n, omenaldi samuŕenetako bat. Bera dala ta Euzkal Eŕia edo Euzkadi (bi izen eta euskotaren Abeŕi bakaŕa) gerta da beraganako maitasun irazekiyak eramanik maitasun onetan bere izena ilezkortu zuan seme onari esker onezko gomutaki au eskeintzeko.

Gar neuŕigabea nabaitzen dala bastar guziyetan diñue edonundik datozen beŕiak, gar onen agerkai bat ematen digutelarik Bidasoa'z arutziko eusko anayak. Jai oneri iñolaz ere ez dute nai utz ematerik eta ikasbide edeŕa emanaz Donibane Loitzun'dik (San Juan de Luz) iragartzen dute eundik gora Uŕetxuaratuko dirala egun oŕetan. Eta alan toki askotatik.

Uŕetxua'n beŕiz dana da gertaketa. Beti, arotz zalekeriaren besoetan lasai ariya bezela lo egon ezin zitekian uriya da Uŕetxua. Eta Ipaŕagiŕe'ren oroimen biziak aztinduta edo, itxartu da noizbait ere eusko izatearа, ta leyatsu diardue olerkari entzutetsuaren jaya antolatzen. Eta egun oŕetan eresaldi, abestaldi, ezpata dantzari eta gorulаrien dantzaketak, Eusko olerti batzaldiya sari gaŕantzitsuakin, antzerki jai bikañak larunbat eta igandean, bertsolari, iŕintzilari eta abar, eta abar. Elizkizun edeŕarekin batera danetatik idoroko dute Uŕetxua'ratutzen diran orok euskeltzale goguari atsegiñezko betekada bat ematekо eran.

Betor bada ordu onean bera eltzeko iŕikatzen gauzkan Ipaŕagiŕe'ren omenezko IV'gn Eusko Olerti Eguna. Betoz baita ere egun oŕetan Uŕetxua'ra al duten euskotar geyenak besarkada anaikor batean bildurik aundikiro ospatzera olerkari ilezkoŕari bere jayoteŕian eskeintzen zayon jai aldia.

Biar emango degu beste zerizelada batzuen beŕi.

Arripe

¡Abertzaleok, Asteasu'ra!

Eldu da eguna abertzaleok, guziok batu bear deguna Asteasu'n. Egun atsegiña. Bai. Igandekoa, iñoiz izaten baldin bada.

Atzo, argitaratu nitun izlari eŕenkadaz gañera, gaur badegu bat gelago, ez nola naikoa gañera.

Guziok bein biño gelagotan txalotutako izlari, trebe, bulartsua da bera. ¿Zein ote da, esango dezu? ¿Zein izango da? ¡"Altzeta" jauna, gizona! Uri osoak eskatzen zuan eta berarekin egonik ez du ukatu bere etoŕera uri ontara. ¡Ederki, ederki "Altzeta", ori da zintzo jokatzea!

—o—

Oŕik, inguruetako uri geleneta zabalduak dira atzo, gañerantzeko lanak "pronto pronto" dagozte, eliz jai, bazkari, ¡a... orain gogoratu naiz! Bazkaltzera etortzeko asmoa dubenak oñak ariñ ibili beaŕean dago: Gaur ilunabarean jakin bear degu ziur, zenbaitzu izango diran. Beraz, etortzeko asmoa dezutenok bazkaltzera aguro ibili, bestela gelditzuko zerate atzean.

—o—

Eguaidi bikaña izango omen da igandean, Iñaki'k dionez. Atzo galdetu ondoren ara zer erantzun zidan:

—¿Zer eguaidi izango ote degu ba, Iñaki?......

—Eguaidiya, guztiz bikaña egin bear dik, "Zubi Ondo".

—¿Ta laño oiek?

—Oiek, ez dituk ezer, legor legoŕak dituk gañera.

Ikusten dezute zer esaten duan Iñaki'k, aditzera dedanez "astronomo" on ona omen da, biño oraingoan asmatzen ezbadu aditu bear ditu edeŕak.

Badakizute, bera piyo dago eguaidiakin, zeubek ere egon zaitezte, bai, eta asi pardela antolatzen.

Agur bigar arte.

ZUBI ONDO

¡Señora!

Cuando pida achicoria exija marca EL LEON, porque es la mejor

Zaizuri jaunari

"Zaizuri" adiskideak EL DIA"n argitaratu zuan "¿Zergatik uskurtzaleak?" irakurgaitxoa "Gure Mutilak" aldizkingian agertu da. Ta A. J. L.'k, gure adiskidearen lana txalotuaz, egiten diakion oaŕak jasotzen ditugu orain emen. Onela dio A. J. L.'k:

"Zaizuri" maite: Guzis ederki iruditzen zaigu esaten dezuna, ta oŕetxegatik atera degu Luistar euskaldunen aldizkari ontan. Diozu: "ez degu jakintzaren jabe egin langile eŕukaŕia...

Oso utzita euki ditugu Eusko langile maiteak".

Zurekin naukazu bete betean "langilea ez degula jakintzaren jabe egin, eta..." diozunean.

Baña nere buruari aspaldi eskatzen ari naizena, ziri ta langileai erakutsi nai dien guziai eskatuko nizuteke. Jana ematea oso ongi da; baña jateko gogoa, gosea, jakin naia, ikasgurea, jakintza gosea ere bear beaŕekoak dira. ¿Eta zer egin dezakegu gure gazte ta langile guzien gogoetan "ikasi naia" sortzeko edo sarizko? Aspalditik nabil bada (ni beintzat) gazteetan ikasi naia, jakin naia arkitu edo sartu nalean eta oŕain arte ez det nai ainbat arkitu edo sartu.

Txit edeŕak, egokiak, ongi idatziak jakinbeaŕak dira idazkitxo ontan eta gerokoetan atera dituzunak. Baña ¿goseti asko arkitu ote dituzte idazki eder oriek? ¡Ai ze poza goseti asko balira oŕelakoak irakurtzeko!

Urteak dira "Argia" ateratzen asi zala. Nere ustez Gipuzkoa ta Gipuzko aldeko euskaldunentzat, langile ta nekazarientzat, bere sailean orain arte agertu dan argirik jatoŕena ta egokiena dezu asteroko au. Badira "Argia" bear bezela beti irakuŕi izan duten nekazari ta langile bat edo beste, tamalez, ez bear ainbat. (Bear bezela irakuŕi dutenak diot; "Argia"k zeozer irakurtzen dutenak milaka bai dira). Begira bada: irakurle oyek ederki dakite kristau langile batek bere uskurtzaz jakin bear duana. Orien gosea sortu edo sartuko baŕtzaleke beste askoei, oek ere zerbait gelago jakitera elduko lirake.

Sakonak, eŕezak, gai askotakoak "Apologetica" gaiz, batez ere, aberatsak dira "Ekin"ek asteoro ematen dizkigun idazkiak; baña irakurtzeko gosea bear.

"GURE MUTILAK" ere (gure aldetik ain kaxkaŕak izan aŕen) askok uste baño gai gelago erabili dituzte gaztedia jakitun egiteko; baña zenbait etxeetan (Zuzendarienetan ere bai) arkitu izan ditugu koŕeoak artu bezelaxe zabaldu ta banatu gabe!

Azkenez: Kristau Ikasbidea (osoa) eskuartean darabilgun aberastasunik onena degu gure gazte ta gazte ez diranak uskurtz gaietan jakintsu egiteko.

Ta jakingo dezu, "Zaizuri", ia amar urte oŕetan Gipuzkoa'ko eŕirik geyenetako eŕi-ikastoletan ezin erakutsi izan dala Kristau Ikasbidea: lenago euskerazkoa zalako, ta orain... badakizu zergatik. Apaiz jaunak egiñalak egin aŕen oso zail da ikastolan ikasi bear litzakena, ondo ikasi erazitzea.

Gañera ¿ain egoki, garbi ta sakonki egiña dagon Kristau Ikasbide oŕek ez al ditu oraiñ arte (eta oraindiokan ere) etsai geyegi arkitu etsairik gutxien arkitu bear zituenen artean? ¡Uskurtzari onelakoak egin dioten kaltea!!

Ari zera zu, "Zaizuri" jaun, ta oso ederki ari zera, oker oriek zuzentzen, jana ematen. Jateko gogoa sortu dezagun. Artuko al dute EL DIA'ren irakurle euskaldunak ematen ari zeran jaki mamitsua jakintzaren jabe egiñ ditezen.

A. J. L.

Errera-Altza

Lengoko batian esan nuen bezela, datoren iganderako, zerbait antolatzeko asmoa zegon eri ontan, eta asmo oyek beteko dira jai aundi batzuk egiñaz.

¡Jayak! ¿Badakizute zertarako diran jai abek? Juan dan ileko 15 eta 16'an izan ziran ugoldeagatik kaltetuaren alde.

...anen jakiñen gañian dago kaltearen aunditasuna, oso atsekabetzekoa, eta batzuen ezin ordaindua; bañan alegindu gaitezen ordaintzen aleikena, eta ortarako dira jai abek.

Orain ilabete gertatutakoak astutzeko ez dira, baizik nolabaitez laguntzeko ordungo kaltetuari.

Ortarako Altza'ko Udal Ayuntamentuak, emengo Bazkun soziedade danen laguntzakin datoŕen iganderako eratzen ditu jai abek; eta ez nolanaikoak ere.

Nolaz egitarau edo programak erderaz bakaŕik atera dituzten (Altza'n noski ez dago euskaldunik) eta tuaz bidezkoa euskeraz ere azaltzia, ara emen erderatik euskeratuta.

Garagaŕila'ren 15 eta 16'eko ugoldeagatik kaltetuak izan ziranen alde, egiten diran jayak. Altza'ko Udala edo Ayuntamentuak emengo Bazkun edo Sogiedade Eusko Etxea, Eusko Gaztedia, Artzak Orizeok, Centro Republicano, Beti Auŕera eta Herrera Sport en laguntzakin eratuak.

Jai abetan izango dira Gipuzkoa'ko agintaŕiak.

Jolasiokieta'ko zelaian, Uztaila'ren 16'an.

Goizian: 8'tan: Artzak Orizeok'ko fanfaŕa, neskatil politak lagun dituala, eŕiyan ibiliko da, jendiaren eŕukitasunari zerbait eskatuaz.

9 t'erditan: Footbal'eko partidua jokatuaz: Pasayako Lagun Edeŕak eta C. D. Arzenal.

10 t'erditan: Pelota partidua eskuz, izanez jokalariyak lau pelotari Gipuzkoa'ko Federaziyoak jaŕiko ditunak, "Herrera Sport"ek antolatuta.

11 t'erditan: Aizkora apostua: Galaraga anayak, beizamatarak, alde batetik, eta Imaz'tar Joseba ta Lizaŕalde'tar Jon, eŕezildaŕak, bestetik, zuzendari izanez, aizkolari izandako oso esagun dan Paulino Uzkudun. Eusko Etxea eta Eusko Gaztedia'k antolatuta.

12'tan: Olar neurketa, Artzak Ortzeok ek antolatuta.

12 ta laurdenetan: Koŕikalariyen arteko jalaidi aundiya, bertan izanik Gipuzkoa'ko aitze aundikoenak, eta emengo Egaña aleginduko da 3.000 neurkin edo metro'ko "marka" auzten, Herrera Sport' ek antolatuta.

Afatsaldian: 3 t'erditan: Pelota partidua: Otaegi ta Orbegozo, altzataŕak, Odriozola ta Biuŕarena'ren aurka. Eusko Etxea ta Eusko Gaztedia'k antolatuta.

4'tan: Football'eko partidu aundiya, jokatuaz: Abandotaŕa, donostiaŕak, eta Touring Club eŕenderiaŕak. Herera Sport'ek antolatuta.

5'tan: Makil dantzarik eta aurresku "Beti Auŕera"k antolatuta.

6'tan: Ezpatadantza agerketa aundiya; 150'tik 200'a dantzari izanik Eusko Etxea eta Eusko Gaztedia'k antolatuta.

Iluntzan: 9 t'erditan: "Gran Verbena a la Veneciana" bi ereabatza edo musika bandan gaiñ, txistulariyak eta abar; argi askokin orniitua egongo da. Izango dira ere edari toki eta txurosaltzaliak.

Jalaldi abetako saneŕiak dira: Goizian: Gizasemeak, bi eŕial; amalau urtetik berakoak, eŕial bat.

Afatsaldian: Gizasemeak, bi eŕial; amalau urtetik berakoak, eŕial bat.

Iluntzan: Gizasemeak, lau eŕial; emakumiak, batez.

Uztaila'ren 16'an, danok Jolasiokieta'ra, gure laguntzen biaŕian arkitzen diranari laguntzera. Erakutsi zayogun gure alkartasun maitekoŕa lagun urkoari batez ere orain atsekabian dagonian.

Au dana ezin genezakegu biartian alaituaz. — Itani

Idazkortza lotsatu zait ¿zer egin?

Ez det gaur goizekoa euskeraz idazteko gogoa. Egun batez, abertzaletasunaren itximur atsegiña sentitu nizun, eta egun ura ezkero, amaikatxo abertzalek gisa, euskera dizut ene malteder kuiunena.

Gaur eŕiko beŕik; biyar beste gorabera batzuk; uŕengoan, ementxe, kolko-kolkoan sortutako biozkadak aizetuz, euskera jantziz apaindurik, an, or, emen, zabaldu ditut. Eta euskerari diotan maitasuna azaltzeko beste asmorik gabe. Bestelako asmoak, zuzen edo okeŕak, nigandik uŕun izan ditut. Benez daitort.

Iru urte oraintxe. Iru urte bai. Egun oietantxe, iru urte euskel irakurleen aspergaŕi, gure izpaŕingietako euskal oŕitxoetan nabilela. ¡Bai ausardia piztu zidala abertzaletasunak!

Gaur ere, irakurle, euskeraz idazteko (?) gogo biziénak eragiñik, ingitxo txuri txuri auŕean nazu.

¿Zertzaz idatziko ordea? Bazegoba mutilek nun koxk egin. ¿Zertzaz idatziko? "Abeŕi" zintzoaren omenaldiari buruz...? Zerbait gaur egunekoatzaz Politika gaiez...? ¡Auxe bai gero lanbidea! Betikoa gertatu zaidak. Baño sekulan baño areago. Lotsa sartu ezuŕetaraño. Idazkatrza lotsez gogortu aia jaña. Lotsa... miña... zerbait nai, zerbait adorez leitu, eta irixi eziña duanaren miña. ¿Zergatik diozu irakurle? Nik noranairako nai nuke euskera. Zer bear orotarako. Ez bakar bakaŕik eŕietako beritxoak zabaltzeko. Gai sakonak erabiltzeko. Jakintza soroak aretzeko. Nunai senti erazteko.

Eta oŕetxegatik irakurle, ene lotsa, ¡ene miña! euskeraz idazteari lotzen naizenean. Euskerari zerbait eskeŕi nai ba. Ez bakaŕik txorakerik. Ez bakaŕik tentelkerik. Zerbait eder. Zerbait atsegin. Eta ene baŕena goitik bera miatu, eta ez baitet kultura lorerik iñundik iñora oartzen, "triskurak" gaintzen dit gogoa.

¿Zer eskeŕi bear diot nik euskerari tentelkerik ez bada? Gañera, gu, euskel idazle gelenok, "kulturari" buruz berdintsu gaituzu. Nai bai; baño ezin. Euskerari bai eskeñiko lore apaiñenak, baño lore baratsarik ez. Eta goroldiozko eskeintza muskil auek opa bear.

Jo ta kea ordea! Ez adi txokoratu ez ene lumatxoa. Ez lotsatu. Auŕera beti gu euskel idazle txiruok. Aita Goikoak gure barnean abertzaletasun sua piztu ziguken. ¡Eskeŕak Goikoa'ri!

Abertzaletasunak eragin ziguk oraiñ arteraño lumatxoa erabiltzera. Abertzaletasunak sortu ausardia idazle edo izateko. Beronetxek beŕitsu biurtu. ¡Aldeguna eskeñiko zioagu euskerari! Tamalez, gutxi. Gutxi bai genezake!

Baño ikararik gabe ¡beti auŕera! Euskel baŕutiratu bear lutekenak baŕutiratu arte. Ordun txokoratuko degu lumatxoa.

Betoz bai lenbaitlen euskera baŕutira euskel zaldun "kultura" dunak. Gure biotzak anitzo ikutuko al ditu Jaun Goikoak olenak ere. Euskerari lotu ditezen buru belaŕi. Eta ordun, gu, sasi idazleok, oŕen gutxi genezakenok, eŕielako beŕik idazteko bakaŕik gai geranok, txokoratuko gera.

Betoz! Mila bider. "Betoz" au argala itzaki ordea. ¿Nork entzungo sasi idazle baten agindua? Nork sendotu lezaken deadar au, abertzale jakintsuen belarietaraño eta biotzetaraño bere oiartzuna irixteko lain!

Sendotu lezakena, lo dago. Lo zaroz, bai, 'eŕi abertzale! Zuk dei zenezake "betoz" kementsuena. Zuk, euskeraz irakurtzen ikasiaz. Egunero euskel-oŕi guzik irakuŕiaz. Eta oŕi auen akatsak ikusi beaŕak bultzako ziñuke ciu egitera; zaldun jakintsuen belaŕietara iritxiko litzaken deadaŕa oiustatzera.

Betoz bai lenbaitlen kulturadunak, euskera edanontzitik jakintza mota guzien uda eusko eŕiak edan naiko duanean.

Beinbitartean, jo ta kea ene lumatxoa. Ez lotsatu ene idazkortza!

Uzturre

AUTOCAR A PAMPLONA
PARA PRESENCIAR EL ENCIERRO, salida domingo a las tres y media madrugada. Regreso una hora después de terminada la corrida.
Billetes: BENGOECHEA - DAMBORENEA :-: OQUENDO, 10 :-: TELEFONO 1-01-75

Doctor IRIGOYEN MEDICO-DENTISTA Fuenterrabía, 19

ALVAREZ MUGICA DENTISTA LEGAZPI, 9, 1.°

¡Doctor Arrieta Oído, nariz, garganta Prim, 13. Tel. 1-66-44

Granja Avícola "BIYONA" -- Irún
PREMIO DE HONOR EN LA ULTIMA EXPOSICION DE AVICULTURA
Venta de gallinas LEGHORN después de su primer año de puesta
LOTES REPRODUCTORES, etc.